

# INFORMAZIOAREN EREMUKO PROFESIONALEN PRESTAKUNTZA EUSKADIN

Francisca Pulgar Vernalte  
Sonia Marcos Maciá

## 1. HITZAURREA

Profil profesionalari buruzko lan-talde honen lehenbiziko helburuetariko bat gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) sektore profesionalaren egoeraren diagnostikoa egitea izan da, eta errealitate horretatik abiatuta jarduera eta estrategia batzuk proposatu eta ekitea, talde profesional horren lan aukerak hobetzeko itxaropenarekin.

Ildo horretan heldu behar zaion oinarrizko gaietako bat prestakuntzarena da, profesionalak izan behar dituzten ezaugarriekin zuzenean lotuta egoteaz gain, egungo lanbidearen egoera suspertu dezakeen ekintzarako ardatz nagusietarikoak baita. Hori dela eta, prestakuntzaren gaia lan-talde honek aurkeztu dituen txostenetako baten baino gehiagotan jorratzen da; baina ikuspuntua eta ikuspegia desberdina da txosten bakoitzean.

Bestaldetik, profil profesionalari buruzko bibliografia berrikusiz gero, ikus daiteke artikulua edota dokumentu gehienetan bi iruzkin errepikatzen direla: bata, profesional-taldearen prestakuntza gabezia; eta bestea, etengabeko prestakuntza planak ezartzeko beharra, profesionalen prestaketa berma dezaten:

- Liburutegi, artxibo edota dokumentazio-zentroetatik eskaintzen diren zerbitzu berriei aurre egiteko.
- Egunetik egunera administrazioetatik jasotzen dituzten zerbitzu publikoen kalitatearekin zorrotzagoak diren erabiltzaileen eskakizunei kasu egiteko.
- Eta nola ez, lan-merkatuan sartzeko eta bere eskaeretara egokitzeko beharrezko ezagutza teknikoei aurre egiteko.

## 2. ABIAPUNTUA

EAEri dagokionez, lehenik eta behin aipatu behar dena da bibliotekonomiako eta dokumentazioko unibertsitateko ikasketarik ez dagoela Euskadin. Carmen Díez Carrerak aipatzen duen bezala, bitxia da iparralde guztian ikasketarik ez egotea, "Galizian salbu, ez dago ikasketarik Asturiasen, Kantabrian, Euskadin, Nafarroan eta ezta Errioxan ere. Deigarria gertatzen da kultura handiko herriak baitira eta enpresa eta industrigune garrantzitsuak dituztenak" <sup>(1)</sup>.

Ikasketa gabezia hau gertaera adierazgarria da EAEko zentro publikoetan nahiz pribatuetan egun lanean ari diren profesionalen prestakuntzari eta jatorriari begiratzen badiogu. Bistan denez, desabantaila egoera batetik abiatzen gara ikasketa arautuak dituzten beste autonomia erkidego batzuei dagokionez, bertako profesionalak lanbide zehatz baten lanean aritzeko prestatuak izan baitira.

Gure kasuan, heterogeneotasun handia duen talde bat aurki daiteke adin, prestakuntza, trebetasun eta gaitasunari dagokionez; eta ikasketak kontuan izanik, hiru kategoria nagusitan bil ditzakegu:

1. Bibliotekonomia eta dokumentazioko prestakuntza arautu ofiziala ez duten profesionalak. Talde honen funtsezko ezaugarria autodidaktismoa da. Beste espezialitate batzuetan lizentziadunak edo diplomadunak izaten dira —ehuneko altuan humanitateetan—, eta norberaren lanean prestatutakoak. Talde honetan bertan eta ezaugarri berberekin batxilergo edo lanbide heziketako ikasketak dituzten profesionalak daude.
2. Hainbat espezialitateetan lizentziadunak diren profesionalak, batez ere humanitateetan, eta ondoren graduondoko ikasketak egin dituzte bai Euskadin hainbat unibertsitateko (EHU, UNED eta Deustuko Unibertsitatea) eskaintzei jarraiki, eta baita Estatuko beste unibertsitateetan ere.
3. Bibliotekonomia eta dokumentazioko unibertsitateko ikasketak dituzten profesionalak, diplomadunak zein lizentziadunak. Gutxiengo taldea dira eta beste autonomia erkidegoko unibertsitateetan egin dituzte ikasketak, eta baita azken urteetan on-line motako eskaintza berrien bidez ere.

Hala ere, pentsa daitekeenaren kontra, ikasketa espezifikoak dituen talde honek ez du abantaila gehiago artxibo, liburutegi eta dokumentazio-zentroetako lanpostuetan sartzeko orduan, nahiz eta prestakuntza maila altuagoa izan gainerako profesionalekin alderatuz gero. Horrela da administrazio publikoetan plazak betetzeko hautaketa-prozesuetan, izangaiek duten espezializazio maila ez

delako puntuatzen ez kontuan hartzen gainerako izangaien aurrean, berariazko ikasketarik ez izan arren.

Araututako prestakuntzaren hutsuneari dagokionez, zalantzarik gabe oztopoa izan da Euskadin lanbidea garatzeko eta gidaritzarako orduan. Guzti horrek eragina izango du liburutegi, artxibo eta dokumentazio-zentroetan lan egiten duten informazioaren profesionalak gizartean eta lanean haintzat hartzeko orduan.

### **3. EGUNGO EGOERA**

Egun sektoreak duen beste ahulguneetako bat urteroko prestakuntza plan baten falta da. Duela urte batzuetatik ona, ALDEEK (Artxibategi, Liburutegi eta Dokumentazio Zentroetako Profesionalen Euskal Elkarte) prestakuntza-ikastaroak eskaintzen ditu, prestakuntzaren arloan EAEko erreferente bihurtu delarik.

Ondoko tauletan ikus daitezke, batetik, ALDEEK 2000 eta 2004 urte artean antolatutako prestakuntza jardueren datuak ikastaro eta parte-hartzaile kopuruari dagokienez; eta bestetik, emandako ikastaroen zerrenda osoa.

<b>Urtea</b>	<b>Ikastaroak</b>	<b>Parte-hartzaileak</b>
2000	7	139
2001	17	430
2002	12	189
2003	12	195
2004	15	259

ALDEEK antolatutako ikastaroetako partehartzearen datuak aztertuz gero, ondorioztatu daiteke arrakasta gehien izan zutenak (parte-hartzaileen kopurua kontuan izanda) teknologia berriekin eta katalogazioarekin zerikusia zutenak izan zirela liburutegien arloan, eta dokumentuen digitalizazioarekin zerikusia zutenak artxiboen arloan.

<b>IKASTAROAK</b>	<b>URTEA</b>	<b>TOKIA</b>	<b>PARTE-HARTZAILEAK</b>
Liburutegi publikoko material berriak: fonoteka eta bideoteka	2000	Donostia	22
Material elektronikoak: (CD-ROM, DVD eta on-line dokumentuak)	2000	Donostia	24
Liburutegi publikoko material berriak: fonoteka eta bideoteka (errepikapena)	2000	Donostia	19
Internet: liburutegietarako baliabideak sarean	2000	Donostia	32
Erabiltzaileen prestakuntza liburutegi publikoetan	2000	Donostia	14
Excel liburutegian	2000	Donostia	11
Aldizkari elektronikoen kudeaketa	2000	Donostia	17
Liburutegia web-ean: nola sortu liburutegiko web-orria	2001	Donostia	17
Dokumentuen digitalizazioa	2001	Donostia	24
Dokumentuen digitalizazioa	2001	Gasteiz	25
Hemeroteka digitala eta informazio komunitarioa liburutegi publikoan	2001	Bilbo	18
Bigarren belaunaldiko lanabesak: eragile eta robot dokumentalak (1. ed.)	2001	Donostia	20
Bigarren belaunaldiko lanabesak: eragile eta robot dokumentalak (1. ed.)	2001	Bilbo	21
Bigarren belaunaldiko lanabesak: eragile eta robot dokumentalak (1. ed.)	2001	Gasteiz	30
Bigarren belaunaldiko lanabesak: eragile eta robot dokumentalak (2. ed.)	2001	Donostia	20
Bigarren belaunaldiko lanabesak: eragile eta robot dokumentalak (2. ed.)	2001	Gasteiz	22

<b>IKASTAROAK</b>	<b>URTEA</b>	<b>TOKIA</b>	<b>PARTE-HARTZAILEAK</b>
Marc katalogazioa (I. maila)	2001	Donostia	16
Marc katalogazioa (II. maila)	2001	Donostia	24
Ibermarc (I. maila)	2001	Donostia	16
Ibermarc (I.maila)	2001	Gasteiz	12
Ibermarc (I. maila)	2001	Bilbo	23
Ibermarc (II. maila)	2001	Donostia	19
Ibermarc (II. maila)	2001	Bilbo	20
Ibermarc (II. maila)	2001	Gasteiz	15
Hemeroteka digitala eta informazio komunitarioa liburutegi publikoan	2002	Donostia	19
Deskribapen artxibistikoa. DMD. I. modulua	2002	Donostia	16
Deskribapen artxibistikoa. DMD. I. modulua	2002	Bilbo	20
Deskribapen artxibistikoa. DMD. II. modulua	2002	Donostia	16
Deskribapen artxibistikoa. DMD. II. modulua	2002	Bilbo	19
Liburutegi publikoen toki-informaziorako zerbitzua	2002	Donostia	18
Katalogazioa eta sailkapena	2002	Donostia	15
Agiritegi Kodetuaren Deskribapenerako Hastapena (EAD)	2002	Donostia	6
Agiritegi Kodetuaren Deskribapenerako Hastapena (EAD)	2002	Gasteiz	20
Internet ikusezina	2002	Donostia	9
Internet ikusezina	2002	Bilbo	10

<b>IKASTAROAK</b>	<b>URTEA</b>	<b>TOKIA</b>	<b>PARTE-HARTZAILEAK</b>
Internet ikusezina	2002	Gasteiz	21
Informazio bilaketa Interneten bidez: hastapen urratsak	2003	Donostia	20
Informazio bilaketa Interneten bidez: hastapen urratsak	2003	Bilbo	10
FileMaker (I)	2003	Donostia	14
FileMaker (I)	2003	Gasteiz	15
MARC formatuari buruzko ikastaroa	2003	Donostia	16
Artxiboari buruzko oinarrizko ikastaroa: udal artxiboa	2003	Donostia	10
Artxiboari buruzko oinarrizko ikastaroa: udal artxiboa	2003	Bilbo	21
Baliabide elektronikoen kudeaketa	2003	Donostia	20
Baliabide elektronikoen kudeaketa	2003	Bilbo	22
Baliabide elektronikoen kudeaketa	2003	Gasteiz	20
Musika inprimatua katalogatzeko ikastaroa	2003	Donostia	20
Musika inprimatua katalogatzeko ikastaroa	2003	Bilbo	7
Baliabide digitalen kudeaketa	2004	Bilbo	22
Marc 21 formatuari buruzko ikastaroa	2004	Donostia	23
Marc 21 formatuari buruzko ikastaroa	2004	Bilbo	18
Marc 21 formatuari buruzko ikastaroa	2004	Gasteiz	13
Udal artxiboei buruzko ikastaroa-Maila aurreratua	2004	Bilbo	17
Udal artxiboei buruzko ikastaroa-Maila aurreratua	2004	Donostia	11
Kudeaketa artxiboak	2004	Donostia	14

IKASTAROAK	URTEA	TOKIA	PARTE-HARTZAILEAK
Kudeaketa artxiboak	2004	Bilbo	20
Dokumentuen digitalizazioa (I)	2004	Bilbo	14
Dokumentuen digitalizazioa (II)	2004	Bilbo	26
Dokumentuen digitalizazioa (I)	2004	Donostia	18
Dokumentuen digitalizazioa (II)	2004	Donostia	19
Dokumentuen digitalizazioa (I)	2004	Gasteiz	19
Haur eta gazte liburuei buruzkoa (euskaraz)	2004	Donostia	11
Informazio bibliografikoa katalogo automatizatueta bistaratzeari	2004	Donostia	14

EAEEn dagoen hutsunea prestakuntza planei dagokionez, ALDEEtik betetzen ari den arren, profesionalen taldeak ezinbestekotzat jotzen du dagokien erakundeetatik etengabeko prestakuntza ikastaroak eskaintzea: eguneroko lanean dituzten hutsuneak osatzeko. Gabezia hauek hein handi batean elementu hauengatik baldintzatuta daude:

- Teknologia berrien ezarpena eta bilakaera azkarra.
- Dokumentazio-zentroen zerbitzuen gehitzeagatik. Horrela, profesionalen ezaugarriak aldatzen ari dira liburuzain, artxibozain eta dokumentalistak informazioaren kudeatzaile bihurtuz.

#### **4. JARDUERAK EPE LABUR ETA ERTAINERA**

EAEEn dokumentazio zientzien unibertsitateko ikasketak noiz eta nola ezartzeko azterketan eta analisisan aurreratzen goazen bitartean; agerikoa da komenigarria litzatekeela ad hoc prestakuntza-plan bat egiten hastea profesional-taldearen prestakuntza hobetzen laguntzeko. Ikastaro horiek egiteko orduan kontuan izan beharko da EAEko liburutegi eta artxiboak zentro eta zerbitzu tipologia mota desberdinek osatzen dituztela.

Une honetan, egokiagoa dirudi etengabeko prestakuntza eta birziklatze ikastaroak eskaintzen lan egitea. Benetako eskaintzaren arabera beharrak zehaztu

beharko lirateke, hau da, prestakuntza egokitu behar da profesional bakoitzaren eta zentro mota bakoitzaren funtzioetara.

Aipagarria da Salamancan egindako II. Liburutegi Publikoen Biltzar nazionalako batzorde zientifikoak emandako ondorioetako bat, txosten honekin harreman zuzena duena:

*"Profesionalen etengabeko prestakuntza beharrezkoa da liburutegi zerbitzuen kalitatea bermatu ahal izateko. Administrazioek eta erakundeek beraien langileen eguneratzea bultzatu, sustatu eta erraztu behar dute"*<sup>(2)</sup>.

Adierazitako guztia kontuan izanik, uste dugu profil profesionalaren lan-talde hau jarduera batzuk bideratzeko eta abian jartzeko bide izan daitekeela, hauen artean nabarmentzen ditugu:

1. Prestakuntza beharrak atzemateko azterketak. Egungo eta etorkizuneko analisia. Erreferentziako adierazleen proposamena. Prestakuntza plan bat diseinatzeko plangintzaren prozesua hasterako orduan beharrezkotzat jotzen da inkesta bat egitea, non taldearen prestakuntza beharrak jasoko diren. Inkesta lanean dauden profesional guztien artean banatuko litzateke, eta galdera zehatzen bidez, besteak beste, ondoko datuak eskuratuko lirateke: adina, lanpostuan egonkortasuna, egungo prestakuntza eta profesionalen talde bakoitzean atzematen diren gabeziak.
2. Urteroko prestakuntza plana egitea. Prestakuntza ibilbide espezifikoak jasoko lituzke eta edukiak taldearen beharretara egokituko lirateke.

Txosten honen helburua plana egitea ez den arren, komenigarritzat jotzen da oinarritzko puntu batzuk aurkeztea prestakuntza jarduerak egiterakoan kontuan izan beharko direnak. Horretarako, besteak beste, alderdi hauexek kontuan izan beharko dira:

#### **4.1. Helburuak**

Euskadiko informazioaren profesionalen birziklatzea eta eguneratzea bermatuko lukeen etengabeko prestakuntza plan bat abian jartzea litzateke. Horrela, helburu hauexek beteko lirateke:

1. Lana egiteko prestakuntza egokia eta beharrezkoa ematea.
2. Profesionalen prestakuntza sustatzea, eduki berrien birziklatzearen eta eguneratzearen bitartez.

3. Profesionalen prestakuntza egokitzea lan-merkatuen beharretara.
4. Kalitatea hobetzea eta herritarren itxaropenei erantzutea zerbitzu publikoei dagokienez.

#### **4.2. Hartzaileak**

EAEko liburutegi, artxibo eta dokumentazio-zentroetan lan egiten duten profesionalak.

#### **4.3. Metodologia**

Atal honetan kontuan izan behar da zenbait profesionalek prestakuntza-ikastaroetara joateko izaten dituzten zailtasunak. Batetik, beraien erakundeek ikastaroetara joateko baimenik ez dietelako ematen; eta, batez ere, lanpostu ugaritan profesional bakarra dagoelako lanean, eta horrek zerbitzuak ixtera behartzen dituelako.

Bestetik, egun nabaria da on line prestakuntza egiteko joera, prestakuntza arauturako sarbidea errazteko eta prozesuaren kosteak merketzeko bide bezala. Bertelsman Fundazioa edo German Sánchez Ruipérez Fundazioa moduko erakundeak ildo horretan ari dira lanean; halaber, ezin dira ahaztu hainbat unibertsitatetan eskaintzen diren ikasketak, besteak beste, UOC, UNED, Pompeu i Fabra eta abarrek eskaintzen dituzten lizentziaturak edota masterrak.

Jarraian prestakuntza aukera batzuk aipatzen dira gizartean teknologia berrien erabilera gero eta handiagoak sustatuta, eta profesional talde handi baten sarrera erraztuko lukete:

- zuzeneko prestakuntza
- autoprestakuntza
- e-ikaskuntza
- tailerrak
- profesionalen arteko trukeak
- jardunaldi profesionalak
- hitzaldiak

#### **4.4. Edukiak**

Batez ere ikastaro praktikoak egitea da helburua, eguneroko lanera bideratuak eta egungo errealitatea kontuan izango dutenak, baina premia berriak ahaztu barik.

#### **4.5. Ikastaroak planifikatzerakoan kontuan izan beharreko eremuak**

##### *4.5.1. Zeharkako ezagutzak, hala nola:*

- komunikazio eta negoziazio tekniken ezagutza
- zuzendaritza eta kudeaketa tekniken ezagutza
- komunitatean gizarteratzea
- erabiltzaileen beharretara moldatzeko premia

##### *4.5.2. Berariazko ezagutzak*

Ezarritako betekizunetik abiatuz gero, hots, edukiak praktikoak izango dira eta oinarrizko gaitasunak lortzen lagunduko digute erabiltzaileei kalitateko zerbitzuak eskaini ahal izateko; nahitaezkoa izango da eskainitako ikastaroak ondoko eremuei buruzkoak izatea:

- antolaketa eta kudeaketa
- trebetasun informatikoak
- marketinga
- erabiltzaileen prestakuntza
- digitalizazioa
- bilduma-digitalak

Prestakuntza eremu nagusiak aipatu dira, baina kontuan izan behar da eremu bakoitzean ikastaro ugari prestatu eta diseinatu daitezkeela.

#### **4.6. Mailak**

Ikastaroen gaiak edo parte-hartzaileen prestakuntza kontuan izanik, komenigarria izan daiteke ikastaro bera maila desberdinetan ematea:

1. oinarrizko maila
2. erdiko maila

3. maila aurreratua

#### **4.7. Parte-hartzaileak hautatzeko prozesua**

Nahitaezkoa izango da aurrez hautaketa-irizpideak zehaztea, batetik, lehentasunak ezartzea ahalbidetzeko, eta, prozesuaren objektibitatea bermatzeko ere bai (esaterako, egindako ikastaroak, eskaeraren aurkezpena, etab.).

#### **4.8. Finantzaketa**

Beharbada alderik garrantzitsuenetarikoa da, baliabide ekonomikoen zenbatekoak edozein planen sinesgarritasunean eta arrakastaren bermean eragina izango baitu.

#### **4.9. Ebaluazioa**

Bistakoa da helburuak bete diren egiaztatzeko adierazle batzuek ezartzearen beharra; eta ondorioz, hainbat datu ateratzen utziko digute ekimena mantentzeko, errepikatzeko edo edukiak aldatzeko egokitasuna berresteko balioko digutenak.

### **5. ETORKIZUNERA BEGIRAKO PLANTEAMENDUA**

Dokumentu honetan azaldutako guztiaren ondoren, ondorio gisa proposamen eta jarduera-ildo batzuk aurkezten dira profesional-taldearen egungo egoera hobetuko luketenak. Jarduera horiek lan-talde honek bultza ditzakeen arren, EAEko sektore profesionalaren laguntza eduki beharko lukete:

1. Prestakuntza plana abian jartzeko eta garatzeko erakundeen beharrezko laguntza izan dezan lan egitea. Profesional-taldetik dinamikak lideratu beharko dira inplikaturiko erakundeek (foru- eta toki-administrazioek, unibertsitateek eta prestakuntza-zentroek, enplegua sustatzeko erakundeek, sindikatuek, etab.) etengabeko prestakuntzako planak gidatu eta kudeatu ditzaten.
2. EAEn bibliotekonomia eta dokumentazioko unibertsitateko karrera ezartzeko premia aztertzea. Ildo horretan komenigarria litzateke erakundeen babesaz baliatzea, Kulturaren Euskal Planaren bidez. Aipatu planaren 1. ardatz estrategikoan hitzez hitz honela dator jasota: "Unibertsitatean titulazio berri bat sor dezaten proposatu: bibliotekonomia eta dokumentazioa"<sup>(3)</sup>

3. Profesionalen artean esperientziak eta praktika onak trukatea, ondokoa sustatuz eta bultzatuz:
  - a) Esperientzia profesionalen trukea EAEn nahiz EAetik kanpo.
  - b) Eztabaidagune elektronikoa abian jartzea informazio eta bibliografia profesionala partekatzeko.
4. Asoziazionismo profesionalaz baliatzea taldearen interesak defendatzeko. Ildo honetan, garrantzitsua da EAeko profesionalen asoziazionismo-maila. Baieztapen hori berresteko datu estatistiko gisa aipatuko dugu 2005ean ALDEEK 463 bazkide dituela. Datu hori aprobetxatu behar dugu lanbidea dinamizatzeko eta gizarte mailan ezberrik gabe merezi dugun gizartearen onarpena eta ikuspena lortzeko.

## **BIBLIOGRAFIA ETA OHARRAK**

(<sup>1</sup>) DÍEZ CARRERA, Carmen: "La formación de los archiveros, bibliotecarios y documentalistas en España desde sus orígenes hasta la actualidad: balance y perspectiva". In: *Boletín de ANABAD* , núm. 1, enero-marzo 2003, or.: 123

(<sup>2</sup>) *Congreso Nacional de Bibliotecas Públicas*. II. Salamanca, 17-19 noviembre 2004. <[http://travesia.mcu.es/documentos/congreso\\_2bp/sumario.pdf](http://travesia.mcu.es/documentos/congreso_2bp/sumario.pdf)> [05-10-28 kontsulta]

(<sup>3</sup>) *Plan Vasco de la Cultura*. Vitoria-Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2004. or.: 64